AYUNTAMIENTO DE LA VILLA DE ERMUA

ERMUA HIRIKO UDALA

**Ordenanza Fiscal nº 23**
**Tasa por Servicios Culturales Generales e Igualdad**

***23. Ordenantza Fiskala***
***Zerbitzu Kultur Orokorrak eta Berdintasunekoak emateagatiko tasa***



## *I. XEDAPEN OROKORRA*

### *1. ARTIKULUA*

*Bizkaiko Lurralde Historikoko Toki Ogasunak araupetu dituen abenduaren 16ko 2005/9 Foru Arauaren 21. artikuluan xedatu denarekin bat etorriz, Kultur orokorrak eta Berdintasuneko Zerbitzuengatiko Tasa ezarri da. Tasa horretan zerga ordenantza hau izango da aginduzko, eta honen arauak aurrean aipatutako abenduaren 16ko 2005/9 Foru Arauan ezarritakoaren araberakoak izango dira.*

## *II. ZERGA EGITATEA*

### *2. ARTIKULUA*

*Tasa honen zerga egitatea ordenantza honetan araupetutako kulturako eta Berdintasunerako zerbitzuak egitea da.*

## *III. SUBJEKTU PASIBOA*

### *3. ARTIKULUA*

*Tasaren subjektu pasibo zergadunak ordenantza honetan araupetutako zerbitzuak edo jarduerak eskatzen dituzten Bizkaiko Lurralde Historikoko Zergei buruzko Foru Arau Orokorreko 33. artikuluan aipatutako pertsona fisiko eta juridikoak edo erakundeak izango dira, edo haien onura jasotzen dutenak.*

## *IV. ZERGA-OINARRIA*

### *4. ARTIKULUA*

*Zerga oinarria ordenantza honetan araupetutako zerbitzuak erabiltzea da.*

## I. DISPOSICIÓN GENERAL

### ARTÍCULO 1

De conformidad con lo dispuesto en el artículo 21 de la Norma Foral 9/2005, de 16 de diciembre, reguladora de las Haciendas Locales del Territorio Histórico de Bizkaia, se establece la Tasa por Servicios Socioculturales Generales e Ingualdad, que se regirá por la presente Ordenanza, cuyas normas atienden a lo prevenido en la citada Norma Foral 9/2005, de 16 de diciembre.

## II. HECHO IMPONIBLE

### ARTÍCULO 2

Constituye el hecho imponible la efectiva prestación de los servicios culturales y de Igualdad regulados en esta Ordenanza.

## III. SUJETO PASIVO

### ARTÍCULO 3

Son sujetos pasivos en concepto de contribuyentes, las personas físicas y jurídicas y las entidades a que se refiere el artículo 33 de la Norma Foral General Tributaria del Territorio Histórico de Bizkaia, que soliciten o resulten beneficiarias, respectivamente, de los servicios o actividades reguladas en esta Ordenanza.

## IV. BASE IMPONIBLE

### ARTÍCULO 4

La base imponible está constituida por la utilización de los diferentes servicios regulados en esta Ordenanza.

*V. KUOTA*

**V. CUOTA**

*5. ARTIKULUA*

**ARTÍCULO 5**

*Tarifa hauek ezarri dira:*

Se establecen las tarifas siguientes:

| *KONTZEPTUA* | EUROS *EUROAK* | CONCEPTO |
|---|---|---|
| ***KULTURA*** | | **CULTURA** |
| • ***Margolaritza Eskola*** | | • **Escuela de Pintura** |
| *. 1. Taldea: 3 ordu/astean* | 28,73 mes/*hileko* | Grupo 1:3h/semana |
| *2. Taldea: 2 ordu/astean* | 27,50 mes/*hileko* | . Grupo2:2h/semana |
| *3. Taldea: ordubete/astean* | 13,75 mes/*hileko* | Grupo 3:1h/semana |
| *Langabezian edo jubilatuta egotea, 16 urtetik behera edukitzea, ikasle izatea egiaztatzen duenari eta gazte-txartela daukanari %10eko kenkaria aplikatuko zaio hileko kuotan* | | A la personsa que acredite encontrarse en la situación de: parado/a, jubilado/a, menor de 16 años, estudiante y quien disponga de gazte txartela, se les aplicará una deducción del 10% de la cuota mensual |
| *Langabezian daudenek hiru hilean behin egiaztatu behar dute egoera horretan jarraitzen dutela. Halaber, kultura-zerbitzuei jakinarazi behar diete egoera horren aldaketen berri.* | | Las personas que se encuentren en situación de paradas deberán acreditar con carácter trimestral que continúan en dicha situación. Así mismo, deberan notificar a los Servicios Culturales los cambios que se produzcan en dicha situación. |
| *Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legearekin bat etorriz, mendeko pertsonen zaintzaile direla egiaztatzen duten emakume eskatzaileek lehentasuna izango dute jardueran parte hartzeko ordutegia aukeratzerakoan* | | De conformidad con la Ley 4/2005, de 18 de febrero, para la Igualdad de Mujeres y Hombres, se establece que aquellas solicitantes mujeres que acrediten su condición de cuidadoras de personas dependientes tengan prioridad en la selección de horarios de asistencia a esta actividad |
| *Bestalde, talde bakoitzean 2 plaza erreserbatuko dira mendeko pertsonen* | | Por otra parte, en cada grupo se reservará un número adicional de 2 plazas para |

| *KONTZEPTUA* | EUROS *EUROAK* | CONCEPTO |
|---|---|---|
| *zaintzaile direla egiaztatzen duten emakumeen eskaerei erantzuteko* | | cubrir la demanda de mujeres que acrditen su condición de cuidadoras de personas dependientes |
| *Hilero ordaindu behar da kuota. Ikasturtearen hasierako hilabeteari dagokion prezioa ikasturtea ofizialki hasten den egunetik aurrera finkatuko da, antolatzaileek ezarritako egutegiaren arabera. Gainerako hilabeteetako kuota, berriz, osorik ordaindu behar da.* | | La cuota se abonará mensualmente. El mes de inicio del curso lectivo, se computará a partir del día en el que oficialmente comience el curso, según calendario establecido por la organización. El resto de mensualidades serán completas. |
| *Ikasleen borondatez jardueraren hasiera-data ofizialki ezarritakoa ez bada, kasu horretan ere jarduera hasitako hilabetearen hileko kuota osoa ordaindu behar da* | | Si por voluntad del alumnado, la fecha de inicio de la actividad no es la establecida oficialmente, igualmente se abonará la cuota mensual integra del mes en el que se inicie la actividad. |
| *Zerbitzuan baja eman eta kuota osoak ez ordaintzeko, baja indarrean sartuko den hilaren aurrekoaren 25a baino lehenago, gutxienez, eman behar da horren berri; bestela, fakturatu egingo da hurrengo hila ere, jarduerara joan edo ez joan. Halaber, hilabetea hasita dagoela baja emanez gero, osorik kobratuko da.* | | A efectos de evitar el pago de las cuotas integras en el supuesto de voluntad de baja del servicio, se notificará con fecha máxima del día 25 del mes anterior al que vaya a hacer efectiva la baja, de lo contrario, se facturará el mes siguiente con independencia de que se asista o no a la actividad. Así mismo, las bajas del servicio que se produzcan iniciado el mes,se cobraran integramente. |
| *Ermua Antzokia* | | • **Ermua Antzokia** |
| *- Antzerkia eta Musika (zuzeneko ikuskizunak) ikuskizun bakoitzaren prezioa ezarriko da, ikuskizun horren cachet-aren arabera* | | -**Teatro y Música** (espectáculos en vivo) se establecerá un precio por entrada a cada espectáculo en relación al cachet de dicho espectaculo: |
| *. 4.000,00€tik beherako cachet-a duten haur-ikuskizunak* | De 4,00€ a 6,00€ | .Espectáculos infantiles cuyo cachet sea inferior a 4.000,00€ |
| *4.000,00€tik gorako cachet-a duten haur-ikuskizunak* | De 6,00€ a 10,00€ | Espectáculos infantiles cuyo cachet sea superior a 4.000,00€ |
| *Herriko talde eta afizionatuen ikuskizunak* | De 5,00€ a 10,00€ | Espectáculos de compañias locales y de aficionados/as |
| *5.000,00€tik beherako cachet-a* | De 8,00€ a | Espectáculos profesionales no locales |

| *KONTZEPTUA* | EUROS *EUROAK* | CONCEPTO |
|---|---|---|
| *duten ikuskizun profesional ez herrikoak* | 12,00€ | cuyo cachet sea inferior a 5.000,00€ |
| *5.000,00 eta 8.000,00€ bitarteko cachet-a duten ikuskizun profesional ez herrikoak* | De 10,00€ a 15,00€ | Espectáculos profesionales , no locales, cuyo cachet se situe entre 5.000,00€ y 8.000,00€ |
| *8.000,00€tik gorako cachet-a duten ikuskizun profesional ez herrikoak* | De 15,00€ a 20,00€ | Espectáculos profesionales, no locales, cuyo cachet sea supeior a 8.000,00€ |
| *Lobiano K.G.ko entzunaretoan programatutako formatu txikiko ikuskizun eta entzule gutxirentzako kontzertuei, ondoko tarifa-sistema aplikatuko zaie aretoak baldintza hobeak dituelako:* | | A los espectáculos de pequeño formato y conciertos para público minoritario programados en el auditorio de Lobiano K.G por reunir dicha sala mejores condiciones, se les aplicará el mismo sistema tarifario |
| *-Zine komertziala* | | **-Cine comercial** |
| *. Haurrentzako saioa* | 3,05 € | . Sesión infantil |
| *. Helduentzako saioa* | 4,85€ | . Sesión adultos |
| *.Jubilatuta egotea eta gazte-txartela edukitzea agiri bidez egiaztatzen duteneentzat* | 4,25€ | . Jubilados/as y personas quien disponga de gazte tzartela documentalmente acreditado |
| *-Zine Kluba* | | **-Cine Club** |
| *Sarreraren prezioa* | 3,85€ | Precio por entrada |
| ***-Hileko bonuaren prezioa*** | De 14,00€ a 20,00€/*14,00€tik 20,00€ra* | **-Precio bono mensual de Cine** |
| *Zinearen prezioak 2,00€tan garestituko dira sarrera bakoitzeko 3D eta zine digitaleko proiekzioak ikusgai direnean. Prezio horretan sartzen dira betaurrekoak ere.* | | Los precios de asistencia al cine se incrementarán en 2,00€ por entrada para todas las proyecciones en 3D y cine digital. En el precio se incluirá la entrega de las gafas. |
| ***Publizitate-hedapenaren prezioa*** | | **Precio por difusión publicitaria** |
| *Kultura eta Gazteria sailaren hedabideetan publizitatea ipintzea* | De 1 a 3.606,07 | Inserción publicidad en medios de difusión del departamento de Cultura y Juventud |
| *. Ikastaroak, ikastaro laburrak eta* | | **Cursos, cursillos y actividades** |

| *KONTZEPTUA* | EUROS *EUROAK* | CONCEPTO |
|---|---|---|
| *Lobianoko jarduerak* | | **programadas en Lobiano** |
| *Ikastaroak eta ikastaro laburrak: eskaintzen den jardueraren araberakoa izango da tarifa.* | De12,10€ a 40,05€ | Cursos y cursillos: se establece una tarifa variable en función del coste de la actividad que se ofrezca |
| *Langabezian edo jubilatuta egotea, 16 urtetik behera edukitzea, ikasle izatea egiaztatzen duenari eta gazte-txartela daukanari %10eko kenkaria aplikatuko zaio hileko kuotan.* | | A la persona que acredite encontrarse en la situación de : parado/a, jubilado/a menor de 16 años, estudiante y quien disponga de gazte txartela, se le aplicará una deducción del 10% de la cuota. |
| *Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legearekin bat etorriz, mendeko pertsonen zaintzaile direla egiaztatzen duten emakume eskatzaileek lehentasuna izango dute jardueran parte hartzeko ordutegia aukeratzerakoan* | | De conformidad con la Ley 4/2005, de 18 de febrero, para la Igualdad de Mujeres y Hombres, se establece que en cada curso o cursillo organizado se reservará un numero adicional de 2 plazas para cubrir la demanda de mujeres que acrediten su condición de cuidadoras de personas dependientes. |
| *Lobiano K.G.ko entzunaretoan eskaintzen den formatu txikiko programazio eszenikoak, entzunareto horren neurrietara egokitzeko beharrari erantzuten dio, Antzokia aretoarekin alderatuta, beraz, espazio horretan eskaintzen diren ikuskizunen prezioak Antzokiaren tarifekin bat datoz.* | | La programación escénica de pequeño formato que se ofrece en el auditorio de Lobiano, responde a una necesidad de adecuación a las dimensiones de dicha sala, en comparación con la sala del Antzoki. En consecuencia, los precios de las entradas a los espectáculos ofrecidos en este espacio se corresponden con las tarifas del Antzoki |
| ***Irabazi-asmorik gabeko kultura-instalazioen alokairua*** | | Alquiler de instalaciones culturales sin ánimo lucrativo |
| *Oro har, ikusirik udalerriko taldeek eta elkarteek egiten duten gizarte- eta kultura-lan garrantzitsua eta haien ekonomiaren kudeaketa hobetzearren, Pertsonal Alorrari atxikitako instalazio, eraikin eta zerbitzuen doakotasuna aldarrikatzen du Ermuko Udalak, betiere programatutako jarduerak egiteko behar bezala eskatzen badira.* | | Con carácter general, y debido a la importante labor social y cultural que realizan los colectivos y asociaciones del municipio, y en aras a contribuir a mejorar su gestión económica, el Ayuntamiento de Ermua declara la gratuidad de uso de las instalaciones, edificios y servicios adscritos al Área de Personas por parte de los mismos, cuando sea requerido y debidamente solicitado para el desarrollo de las actividades que tengan programadas. |

| *KONTZEPTUA* | **EUROS** *EUROAK* | **CONCEPTO** |
|---|---|---|
| *Printzipio hori aplikatzeko, zinegotzi ordezkari baten proposamen arrazoitua behar da, non zehaztu behar baitira dagozkion arrazoiak (sozialak, edo ongintzaren, kulturaren zein interes publikoaren arlokoak); bestalde, ez da tasaren likidaziorik egingo instalazioen erreserbagatik, ezta jarduera horiek egitean udalerriko taldeek eta elkarteek dirua biltzeko sistemaren bat aurreikusia baldin badute ere, bai dagokion jarduera zehatza ordaintzeko, bai haren finantziazioa hobetzeko.* | | Este principio es de aplicación siempre y cuando exista propuesta razonada de un/a concejal/a delegado/a haciendo constar las razones sociales, benéficas, culturales ó de interés público que así lo aconsejen, no se practicará liquidación de la tasa en concepto de reserva de instalaciones inclluso si el desarrollo de dichas actividades, y siempre asociado a ellas, los colectivos y asociaciones del municipio, tuvieran previsto algún sistema de recaudación bien para el abono de la actividad concreta de la que se trate, bien para mejorar su finaciación. |
| ***Irabazi-asmoa duten instalazio kulturalen alokairua*** | | **Alquiler de instalaciones culturales con ánimo lucrativo** |
| *Ermua Antzokia irabazi-asmoa duten erakunde edo enpresei alokatzea* | | Alquiler de Ermua Antzokia a entidades con ánimo de lucro o empresas: |
| *. Jendeari ezer kobratuko ez zaion jardueretarako* | 133,41€ | . Para actividades sin cobro al público |
| *. Jendeari kobratuko zaizkion jarduueretarako, sarrera-kostuaren baremoan ezarritakoaren arabera.* | Mínimo/*Gutxienez* 179,59€<br>Máximo/*Gehienez* 1.231,33€ | Para actividades cobrando al público, según baremo por coste de las entradas. |
| *Instalazioaren alokairu-tarifa aplikatuko da enpresa edo erakunde eskatzaileak modu sinesgarrian adierazten badu jarduerari etekin ekonomikoa atera nahi diola; bestela, ez zaio aplikatuko tarifa hori, erakunde eskatzaileak aldez aurretik berariaz adierazten badu jarduera pribatua dela.* | | Será de aplicación la tarifa por alquiler de la instalación cuando la entidad o empresa solicitante manifieste fehacientemente su intención de hacer una explotación económica de la actividad de la que se trate. De no ser así, y previa solicitud expresa de la entidad sollicitante, el carácter privado de la actividad no conllevará la aplicación de dicha tarifa. |
| ***Lobiano Kultur Gunea irabazi-asmoa duten enpresei alokatzea*** | | **Alquiler de Lobiano Kultur Gunea a entidades con ánimo de lucro o empresas** |
| *. Areto bat, teknikaririk gabe* | *58,99* hora / *ordu* | . Una sala sin personal técnico |

| *KONTZEPTUA* | **EUROS** ***EUROAK*** | **CONCEPTO** |
|---|---|---|
| *. Areto bat, teknikariarekin* | *76,98* hora */ ordu* | . Una sala con personal técnico |
| *. Hainbat areto, teknikaririk gabe* | *85,68* hora */ ordu* | . Varias salas sin personal técnico |
| *. Hainbat areto, teknikariarekin (teknikari 1)* | *104,67* hora */ ordu* | . Varias salas con personal técnico (1 persona) |
| *. Hainbat areto, teknikariarekin (2 teknikari)* | *122,21* hora */ ordu* | . Varias salas con personal técnico (2 personas) |
| *Instalazioaren alokairu-tarifa aplikatuko da enpresa edo erakunde eskatzaileak modu sinesgarrian adierazten badu jarduerari etekin ekonomikoa atera nahi diola; bestela, ez zaio aplikatuko tarifa hori, erakunde eskatzaileak aldez aurretik berariaz adierazten badu jarduera pribatua dela.* | | Será de aplicación la tarifa por alquiler de la instalación cuando la entidad o empresa solicitante manifieste fehacientemente su intención de hacer una explotación económica de la actividad de la que se trate. De no ser así, y previa solicitud expresa de la entidad solicitante el carácter privado de la actividad no conlllevara la aplicación de dicha tarifa. |
| ***3. EMAKUMEEN ETA GIZONEN ARTEKO BERDINTASUNAREN ALDEKO ALORRAK ANTOLATZEN DITUEN ZERBITZUAK ETA JARDUERAK*** | | **SERVICIOS Y ACTIVIDADES ORGANIZADOS POR EL DEPARTAMENTO DE IGUALDAD ENTRE HOMBRES Y MUJERES** |
| Emakumearen Topaguneak antolaturiko jardueretaren haurtzaindegi zerbitzua | 5,63€ /hora/*ordu* | .Servicio de guardería de las actividades de la Casa de la Mujer |
| *. Txangoak* | De 5,00€ a 34,00€ mes / hileko | . Salidas culturales |
| *. Ikastaroak, ikastaro laburrak* | De 5,00€ a 34,00€ mes / *hileko* | .Salidas Cursos cursillos |
| *. Kultur jarduerak* | De 5,00€ a 34,00€0 mes / hileko | *Actividades Culturales* |
| *Alor horrek eskaintzen dituen jardueren ugaritasuna dela eta (aldatu egiten dira jarduerak, programa edo kanpaina orokorra zein den), cachetaren edo kontratuaren araberako tarifa aldakor bat ezartzea proposatzen da.* | | Debido a la variedad de las actividades que se ofrecen por el Departamento, que varían según el programa o campaña general en el que se inscribe, se propone una tarifa variable en función del precio del cachet o contrato |

| *KONTZEPTUA* | **EUROS** *EUROAK* | **CONCEPTO** |
|---|---|---|
| ***EUSKARA*** | | **EUSKERA** |
| - ***Gabonetako jarduerak( Negulekuak)*** | | **- Actividades Navidad (Negulekuak)** |
| *Tasa arrunta* | 52,08€ | Tasa común |
| *Familia ugariko kidea bada edo bi anai-arreba inskribatuz gero (bakoitza)* | 41,66€ | En caso de ser miembro de familia numerosa o de inscribirse varios hermanos/as (cada uno). |
| ***- Udalekuak*** | | - **Actividades de verano (colonias)** |
| *Tasa arrunta* | 104,15€ | Tasa común |
| *Familia ugariko kidea bada edo bi anaia-arreba inskribatuz gero (bakoitza)* | *86,45€* | En caso de ser miembro de familia numerosa o de inscribirse varios hermanos/as (cada uno) |

***VI. KUDEAKETA ETA DIRU BILKETA***

***6. ARTIKULUA***

*“Gabonetako eta udako jardueren matrikularen dirua itzultzeko eska daiteke baldin eta jarduerak hasi aurretik gaixotasuna, ebakuntza kirurgikoa edo istripua dela-eta haurrak ez parte hartzea gomendatzen bada, txosten medikoa erantsita.*

*Pinturako tasa ordaintzeko betekizuna zerbitzua erabiltzen hasten denean sortzen da, eta hilean behin kobratuko da.*

*Udalaren zerga-bilketa zerbitzuari emango diote kultura-zerbitzuek ikasleen errolda, eta bakoitzak ordaindu beharreko kuota jakinaraziko, hil bakoitzeko lehen eta bederatzigarren egunen artean. Hil bakoitzeko 10. eta 15. egunen artean bidaliko da hileko abonuaren ordainagiria.*

**VI. GESTIÓN Y RECAUDACIÓN**

**ARTÍCULO 6**

“La devolución de la matrícula en los casos de las actividades de Navidad y Verano de euskera se podrá solicitar cuando antes de empezar las actividades y con informe médico adjunto se aconseje la no participación en estas porenfermedad, intervención quirúrjica o accidente del niño/a

Se considera devengada la tasa de Pintura desde que se utilice el servicio y su cobro será mensual.

Los servicios culturales, trasladaran a la Recaudación Municipal el censo del alumnado con las cuotas correspondientes a satisfacer por cada alumno/a, entre los días 1 y 9 de cada mes. El recibo de pago para el abono mensual se realizará entre los días 10 y 15 de cada mes.

### *7. ARTIKULUA*

*Hilero errolda bat egingo da ordaindu beharra duten pertsonen izenak, helbide fiskala eta tarifak aplikatu ondorengo zerga-kuotak jasoz.*

### ARTÍCULO 7

Mensualmente se confeccionará un padrón en el que constarán los nombres, domicilio fiscal de las personas obligadas al pago y la cuota tributaria resultante de la aplicación de las tarifas.

### *8. ARTIKULUA*

*Erroldetan bildutako zergaren kuotak udal organo eskudunak horretarako onetsiko duen zerga-egutegian eta zerga-bilketarako ordenantzan ezarriko diren egunetan kobratuko dira.*

*Bi hileko jarraian kuotarik ordaindu ezean, zerbitzua kendu egingo da.*

### ARTÍCULO 8

Las cuotas del tributo incluidas en los padrones serán puestas al cobro en las fechas que figuran en el calendario tributario y en la Ordenanza de Recaudación que al efecto aprobará el órgano municipal competente.

El impago de la cuota correspondiente por un periodo de dos meses consecutivos dará origen a la supresión del servicio.

### *VII. AZKEN XEDAPENA*

*Zerbitzu Kultural Orokorrak eta Berdintasunekoak emateagatiko Tasa araupetu duen Zerga Ordenantza 2020ko urtarrilaren 1ean jarriko da indarrean, behin betiko onetsi eta Bizkaiko Aldizkari Ofizialean 2019ko abenduaren 20ko 243. alean argitaratu eta gero, eta indarrean egongo da harik eta hura aldatzea edo indargabetzea erabaki arte.*

### VII. DISPOSICIÓN FINAL

La presente Ordenanza Fiscal reguladora de la Tasa por Servicios Culturales Generales y de Igualdad empezará a regir el día 1 de enero de 2020, una vez aprobada definitivamente y publicada en el Boletín Oficial de Bizkaia nº 243 de fecha 20 de diciembre de 2019 y seguirá en vigor hasta tanto se acuerde su modificación o derogación.